



# **Mugaz gaindiko kirol lankidetzari buruzko X. mintegia**

**TXOSTENA**

**2009ko urriak 9 eta 10**

**Hendaya (Francia)**



eurored del deporte



Bidasoa - Txingudi

## **Kirol lankidetzari buruzko mugaz gaindiko X. mintegia** “MUGAZ GAINDIKO ELKARTE EREDUA KIROL MUNDURA APLIKATUA”

### **EGITARAUA**

#### **urriak 9, ostirala**

**10:00** - Harrera, dokumentazio banaketa eta kafea.

**10:30 - 10:45:** Inaugurazio ofiziala Kirolaren Euro sarearen presidente Iñaki Ugarteburu jaunaren eta Irun, Hendaia eta Hondarribiko alkateen eskutik.

**10:45 - 11:00:** Mintegiaren aurkezpena Euro sarearen koordinatzaile nagusi Julián Gomez Fuertes jaunaren eskutik.

**11:00 - 13:30:** Hizlari hauek gaia garatuko dute eta ondoren mahai-ingurua egingo da:

*- Ramon Martiarena, Kirolaren Euro sarearen idazkaria*

*- Francina Esteve, Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren eta Nazioarteko Harremanen Arloa, Gironako Unibertsitatearen Zuzenbide Fakultatea.*

*- Juan Jose Alvarez, Zuzenbidean katedraduna eta Bergarako UNEDeko zuzendaria.*

*- Patxi Lopez de Tejada, Franck Macera, Iuris-Muga Mugaz gaindiko Behatokia.*

**13:45 - 15:45:** Bazkaria Hendaiaiko Serge Blanco jatetxean.

**16:00 – 18:00:** mugaz gaindiko elkarten kasu praktikoak, kirol mundura aplikaturik

*- Iñaki Bolea (C.H.H. Txuri-Urdin (Donostia)), Carlos Gordóvil (F.E. Deportes de Hielo)*

*- Luis Espinosa (Club Náutico Hondarribia), Alain Callede (Club Maritime Hendaye Txingudi)*

*- Daniel Dieguez Club Deportivo Open (Ourense)*

*- Jean Didier Gry (Odiana. Associação para o Desenvolvimento do Baixo Guadiana)*

**18:00 - 19:00:** Mintegiko gaiaren gainean eztabaida eta konklusioak.

**20:45.-** Ficobara autobusez.

**21:00** - Afari ofiziala Iñigo Lavado jatetxean (Ficoba Irun).

#### **urriak 10, larunbata**

**9:30 - 11:30:** Bisitaldi gidatua Tribord-era (Hendaia).

**11:30 - 13:30:** Kirolaren Euro sarearen Batzar Nagusia, eta ondoren, agur ofiziala eta luntxa La Pinta bodegan ( Sokoburu).



eurored del deporte



Bidasoa - Txingudi

## PARTAIDEAK

Iñaki Ugarteburu Artamendi, Diputación Foral de Gipuzkoa.  
Julián Gómez Fuertes, Diputación Foral de Gipuzkoa.  
Ramón Martiarena Bergaretxe, Diputación Foral de Gipuzkoa  
Rosa María Morcillo Peña, Kirol Management S.L.U.  
Marta Vilumbrals Díaz, Consell Comarcal de l'Alt Empordà  
Pilar Fuertes, Consorcio Transfronterizo Bidasoa-Txingudi  
Kote Olaizola Sañudo, Bera Bera R.T.  
Igor Etxeberria, Bera Bera R.T.  
Philippe Ducasse, Aviron Bayonnais  
Iñaki Bolea, C.H.H. Txuri Urdin  
Daniel Dieguez, C.D. Open (Ourense)  
Jean Didier Gry, Odiana. Associação para o Desenvolvimento do Baixo Guadiana  
Francina Esteve, Univesidad de Girona  
Juan José Alvarez, Catedrático de Derecho y director de la UNED-Bergara  
Patxi López de Tejada, Observatorio Transfronterizo Iuris-Muga  
Franck Macera, Observatorio Transfronterizo Iuris-Muga  
Carlos Gordóvil, F.E. Deportes de Hielo  
Luis Espinosa, C.N. Hondarribia  
Alain Callede, Club Maritime Hendaye Txingudi  
Marcela Martínez, C.N. Hondarribia  
Ana Alicia Almazán, Diputación Foral de Gipuzkoako Foru Aldundia  
Dominique Arnaud, Entente Sud Gascogne  
Lander Bello, Antigua-Luberri B.H.I.  
Iñaki Murua Gorostidi, Fundación Oreki  
Jon Odriozola, Fundación Oreki  
José Manuel González Aramendi, Fundación Oreki  
Sophie Herrera, Universidad de Burdeos  
Sylvain Dufourcq, Universidad de Burdeos  
Pierre Aramburu, Hendaye  
Sylvie Estomba, Hendaye  
Belén Sierra, Ayuntamiento de Irún  
Iñaki Laguna, Ayuntamiento de Irún  
Goizane Alvarez, Ayuntamiento de Irún  
Xabier Tife Susperregi, Ayuntamiento de Hondarribia  
Javier Echepare, Ayuntamiento de Irún  
Jean Michel Berra, Mairie de Hendaye  
Pilar Valenciano, Ayuntamiento de Hondarribia

## ONDORIO OROKORRAK

### 1.- Aurkezpena.

Hona hemen aurkezpena egin dutenak: alde batetik, Sylvie Estomba, Hendaiaiko Herriko Etxeko auzapezordea; eta beste aldetik, Iñaki Ugarteburu, Kirolaren Euro sareko lehendakaria eta Gipuzkoako Kiroletako zuzendari nagusia.

2.- Ramón Martiarenak sarrera bat egin du Euro sarearen historiari buruz eta haren jarduerari buruz, baita mugaz gaindiko harremanei buruz, oro har, eta kirol arloan aplikatzeko aukerari buruz, bereziki.

3.- Txosten nagusia Francina Esteve doktoreak garatu du, Gironako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren eta Nazioarteko Harremanen arlokoak.

Europako tresna berri bat (2006), Europar Batasuneko estatu kide bakoitzak garatu behar duena (arazo iturria da zeinek garatu behar duen tokiko eremuan, batez ere, osatera "federala" duten estatuetan: Alemania, Belgika, Espainia, etab.)

Lisboako Ituna indarrean sartzeari esker garapen hobea izango du transposizio horrek. Itun horrek lehenengo aldiz sartzen du kirolaren gaia eskumen osagarri gisa (kirola eta lurralde lankidetzaren lotzea).

LLEE-Lurralde Lankidetzako Europako Elkarteari buruzko Erregelamenduak malgutasun handia dauka hogeita zazpiek araudietan duten aniztasun handiari egokitu ahal izateko.

Espainiako Estatuan, 1082/2006 Errege Dekretua gutxieneko batzuen esparrua da, araudi berariazkoago batean garatzen dena.

Egokitu egin da Frantzian eta Portugalen (Euro sarearen eremuetan).

Lankidetzaren nazioz harandikiko beste eremu batzuetara zabaltzeko aukera irekitzen du Erregelamenduak.

Jarraian zehatz-mehatz garatzen ditu Lurralde Lankidetzako Europako Elkarteari edukiak eta ereduak (ikus txostena)

Nola aplikatu dakioke tresna hori Kirolaren Euroareari?

Ba al dute kirol klubek eta federazioek “zuzenbide publikoko erakunde” horretan parte hartzerik?

Sortu al liteke LLEE bat kide "pribatuekin" bakarrik, esaterako, klubekin edo klubuen elkarteekin?

Estatu kide ez direnen elkarteak argitu? Andorra, kasu?

Komeni al da Euroarea LLEE bat bilakatzea, Europar Batzordean Kirolarentzat dauden egiturazko funts berezi berriak eskuratzeko? Coubertein programa?

## **2.- Mahai ingurua.**

Juanjo Alvarez, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna eta Bergarako Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko zuzendaria.

Nola proiektatu lege oinarriak mugaz gaindiko kirolean. Europar Batzordeak nahastu egiten ditu lege arlo publikoa eta pribatua: “lege autismoa kirol munduan”.

Kirolean abiatu europar erakunde bat sortzea (Moratinos, Espainiako estatuak 2010eko lehen seihilekoan Europar Batasunaren txandako lehendakaritza bereganaturik)

Europako Erregelamendua, Erroma 1 eta 2.

Mugaz gaindiko kirolaren arloan dagoen arazo nagusia lurraldetasunarena da.

Autonomia estatutu berriak (6), eskumena kanpoko ekintzan, eta bereziki eskualdeen esparruan. Berriaz aipatu dute mugaz gaindiko lankidetzak, lankidetzak behar gisara.

Urriaren 5ean, Bruselan, berriaz aztertu zuten kirolaren gaia mugaz gaindiko eskualdeen eremuetan. (ikus konklusioak)

Muga barneko kirol elkartegintza sustatzea.

Ekipamenduen erabilera sustatzea.

Mugaz gaindiko eskola kirolaren eremua koordinatzea.

Mugaz gaindiko babes eta mezenasgorako esparru juridikoa ematea (Ogasunarekin aztertze proposamena).

Mugaz gaindiko IKTak.

Bertako kirola.

“Kirola aukera ezin hobea da mugaz gaindiko lurralde garapenerako”

2013ko jomuga funtsezkoa izango da eskualdeen garapenean.



eurored del deporte



Bidasoa - Txingudi

Patxi López de Tejada abokatu, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko kidea, eta Iuris Muga Mugaz gaindiko Zuzenbide Behatokiko zuzendarikidea.

Zergatik den beharrezkoa mugaz gaindiko espazioetako klubuen arteko lankidetzak.

- distantziak
- mailen arteko aldeak

Batzuen eta besteen prestakuntza teknikoari etekina ateratzea.

Kirola eskumen publiko bat da (federazioak), eta haren egitura lurraldetasun printzipioan oinarritzen dute.

Murrizketak:

- europar ez nazionalen afizionatuen lehiaketetan parte hartzea
- Kirol lehiaketak hirugarren lurraldeetara tokialdatzea.

Adibide txar bat: Arraunketan proposatu dute lehiaketetan parte hartzeko aukera izatea, baina sailkapenean sartzeko eskubiderik izan gabe, beraz, sarietarako eskubiderik gabe.

Iritzia: egungo elkartzeko figurek ez dute balio klubentzat.

- lizentzia
- kirol entitateen erregistroa
- EIETek (Ekonomia Intereseko Europako Taldea) denen eskura jar ditzake diru baliabideak klubuen artean.
- euroklubak, esate baterako, txirrindularitzan egin liteke?
- tresna juridiko oso mugatuak.

Irtenbideak.

- lankidetzak praktikoa
- lankidetzak hitzarmenak
- mugaldeko estatus berezia kirolarentzat, estatuetakoa arautegia aldatuz (salbuespenak jarri erregelamenduetan eta arauetan)
- ez du ikusten irtenbide gauzagarririk zuzenbide pribatuaren ikuspegitik begiratuta

Franck Macera, Baionako Abokatuen Elkargoko kidea, Iuris Mugako ordezkaria.

Ereduaren alderdi tekniko onen eta mesedegarrien azalpena.

Galdetzen du ea nola bereiz daitezkeen kirol arloa eta zuzenbide arloa, eta bere iritziz ezinezkoa da eta ez da desiragarria ere.

Begiratzea ea arauak zer aukera ematen dizkiguten, geure onerako baliatzeko (adibide garbia kirol arloan... beti aztertzen dira joko araudiak, aukerarik ematen ez digun horretan noraino irits daitezkeen arakatzeko).



eurored del deporte



Bidasoa - Txingudi

Solasaldiko partaidetza:

- Txirrindularitzaren eredu (Julián)
- Euskarians (Kote)
- Patxi López de Tejada, klub bikoiztasuna mugaren alde bietan. Konklusioa da alde bietan izen emandako bi klub direla.
- Hendaia auzapezorde Pierre Aramburuk galdetu du ea zergatik ez den aurreratzen gai honetan, gizarteko beste edozein gunetan hainbeste aurreratu denean.
- Francina Esteveri galdetu diote ea nola txertatu daitezkeen kirol elkarteak LLEE figura berrian. Erantzun du Eurosurearen moduko erakunde gutxi dagoela edo bat ere ez, kirola Eurosureak bezala tratatzen duena; proposatu du entitate pribatu elkartzeko irizpidea erabilita lan egitea, esaterako, fundazioen bidez.
- Manu González  
Entitate pribatuek LLEEn parte hartzea  
Txirrindularitzaren gaia, fitxen bikoiztasuna. Txandakatzea.
- Alain Cailledek hauxe aipatu eta azaldu du: bela arloan Hondarribiak eta Hendaia sinatutako lankidetzaren hitzarmena.

### **JARDUNBIDE EGOKIAK MUGAZ GAINDIKO HARREMANETAN KIROL ARLOAN**

1.- Pirinioetako Izotz Hockey Liga, Txuri Urdin Izotz Hockey Taldeak aurkeztua, eta Izotz Kirolen Espainiako Federazioa, Iñaki Boleak eta Carlos Gordobilek aurkeztua, honela mintzo dira: “egiteko borondate garbia badago, egin egin daiteke”. Abiapuntu bat da eta lehiaketa zenbait kategoriatan taxutu nahian ari dira, mendikateaz bi aldeetako klubek parte hartuta. Borondatea estatuko federazioen arteko erabaki formalean gorpuzten da, nazioarteko federazioaren laguntzarekin.

2.- Hendaia eta Hondarribiko klubek bela jarduerak garatzeko lankidetzaren hitzarmena, Gipuzkoako Bela Federazioaren laguntza duena, Alain Cailledek eta Luis Espinosak aurkeztua, alderdi hauek azpimarratuta: kudeaketa bateratzea, baliabideak optimizatzea, kulturaratzea eta mugaz gaindiko gunearen bistaratze praktikoa.

3.- Ourenseko Open kirol klubak belar hockeyaren eremuan sustatzen dituen jarduerak, Daniel Diéguezek aurkeztuak. Kontua da jolaseko kirol lehiaketa erabiltzea herritarren arteko harremanak errazteko, lehenengo Portugal eta Galiziaren arteko muga zaharraren bi aldeetako pertsonen artean, eta gero Europako beste herri batzuetako klub partaidetzarako bidea emanez. Gainera, halako jarduerak gizarte eta ekonomiaren garapenerako gune benetako bat sortzen dute Ourense eta ingurumarietan.



eurored del deporte



Bidasoa - Txingudi

4.- Kirolaren inguruan Odiana - Associação para o Desenvolvimento do Baixo Guadiana izeneko elkarteak sustatzen dituen jarduerak. Kasu hori Jean Didier Gry jaunak aurkeztu zuen, eta azaldu zuenez, Guadiana ibaiaren bi ertzetako zenbait herri biltzen dituen elkartearen helburu nagusia da ekonomia eta gizarte garapena, historikoki banaketa ikurra izan zen ibaiaren inguruan egituratua, nahiz eta gaur egun herritarrentzako lokarri bat den, kirolak garrantzi handiko agerpena daukala. Ibaiaren bi hegietako kirol instalazioak erabiltzeko txartel bakarra ezarri ote daitekeen proposatzen ari dira.

### **KONKLUSIO OROKORRAK ETA PROPOSAMENAK:**

- “Borondatea”: mugaz gaindiko jardueren motorra.
- Lege esparruak arakatzeari, abiapuntutzat ezin egin daitekeena hartuta, irtenbide praktikoak bilatzeko eta oztopoak jartzen dituztenei erantzun baikor eta onuragarri bat emateko.
- Jolaseko kirol jardueretan edo ez-ofizialetan eta eskolako kirol jardueretan gertatzen den erraztasunaz baliatzea.
- Baliabideak optimizatzea:
  - pertsonalak
  - materialak
  - ekipamenduak
  - komunikazioa
- Herritarrei mugaz gaindiko errealitatea ikusarazi beharra, komunikazio ekintza garbien bitartez (material komunak sortzea, IKTak erabiltzea, eta abar).
- Oraingoan, badirudi zailtasun handiak dituela mugaz gaindiko kirol elkarteak sortzeko asmoak, hutsaren hurrengo baita araudien bateratzea, publikoa nahiz pribatua.
- LLEEren figuraren erabilera arakatzeko aukera proposatzen da mugaz gaindiko erakunde publikoak sortzeko, xedetzat kirola izanik, nahiz eta oraindik ez dagoen oso garbi kirol elkarte pribatuak erakunde publikoetan sartzeko aukera.
- Europako legerietan, herri nahiz eskualde mailakoetan, arau aldaketak sartu beharra aldarrikatzen da, kirolaren mugaz gaindiko harremanen mesedetan izan daitezen.
- Eurosareak legegintzako ekimen bat bultzatzea Europako Parlamentuari kirol arloko arau aldaketak eskatzeko, hartara era guztietako kirol jarduerak egitea benetan ahalbidetu dezaten (baita lehiaketa ofizialak ere) Europar Batasuneko mugaz gaindiko espazioen eremuan. “Europe for Citizens” programaren barruko EU:SPORT:FUTURE sareko baliabidea erabiltzea.



eurored del deporte



Bidasoa - Txingudi

